

Txapela buruan eta ibili munduan

Haurreskolak Partzuergoa

- Lanaldia
- Lan Hitzarmena: lizentziak eta baimenak
- Ordainsariak
- Odol-ahaidetasuna
- Prebentzioa eta Mutualia
- Amatasuna, gurasotasuna eta edoskitzea



www.steilas.eus



Hezitzaileen lanaldi murrizketak*

Zenbateko murrizketa	Lanaldia	Arreta zuzena	Prestakuntza	Ordainsarien murrizketa
Murrizketarik ez	7 ordu	6 ordu eta 15 minutu	45 minutu	Murrizketarik ez
1/8 (52 minutu)	6 ordu eta 8 minutu	5 ordu eta 29 minutu	39 minutu	Ordainsariak/8
1/7 (ordu bat)	6 ordu	5 ordu eta 22 minutu	38 minutu	Ordainsariak/7
1/6 (ordu bat eta 10 minutu)	5 ordu eta 50 minutu	5 ordu eta 13 minutu	37 minutu	Ordainsariak/6
1/5 (ordu bat eta 24 minutu)	5 ordu eta 36 minutu	5 ordu	36 minutu	Ordainsariak/5
1/4 (ordu bat eta 45 minutu)	5 ordu eta 15 minutu	4 ordu eta 41 minutu	34 minutu	Ordainsariak/4
1/3 (2 ordu 20 minutu)	4 ordu eta 40 minutu	4 ordu eta 10 minutu	30 minutu	Ordainsariak/3
1/2 (3 ordu eta 30 minutu)	3 ordu eta 30 minutu	3 ordu eta 7 minutu	23 minutu	Ordainsariak/2

Lanaldi osoa eta jarraia duten langileek bazkaltzeko 30 minutu dituzte (zeharkako arreta).

* Murrizketa hauetaz gain norberak behar duen denbora murriztu dezake jardun erdia gainditzen ez duen bitartean.

Lan Hitzarmena: lizentziak eta baimenak

Artikulua	Norberarena	Norberaren eta bikotekidearen senideengatik			Etxetik 150 kilometro baino urrunago bada
		1. mailakoak	2. mailakoak	Maila urrunagokoak (elkarbizitza egiaztatuta)	
33. artikulua: Ezkontza	20 egutegi egun (ezkontza eguna barne)	Ezkontza eguna	Ezkontza eguna		3 egutegiko egun (ezkontzakoa barne)
34. artikulua: Gaixotasun larria Ospitalizazioarekin edo ospitalizazio gabe interbentzio kirurgikoa eta ondoren etxean atsedena hartu behar denean		5 lanegun (gurasoen kasuan, 2 lan egun)	2 lanegun	2 lanegun	Egutegiko 2 egun gehiago
34. artikulua: Heriotza		5 lanegun (gurasoen kasuan, 3 lan egun)	3 lanegun	3 lanegun	Egutegiko 2 egun gehiago
40. artikulua: Azterketak egitera joateko baimena	Azterketa eguna (zentro ofizialetan edo homologatutakoetan)				Bi egutegi egun
41. artikulua: Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikua zentro publikoetan	Beharrezkoa den denbora	Laguntzeko beharrezkoa den denbora (hurrengo 2 hilabeteetan erreperatu behar da)			

47. artikulua: Eszedentziak

Mota		Zenbat denbora	Lanpostuen erreserba	Antzintasuna
Zaintzak	Seme-alabena	Eskatzaileak nahi duena txikiak hiru urte bete arte	BAI	BAI
	Ahaideak (odol edo ezkontza 2. mailara artekoak)	Gehienez 2 urte	BAI	BAI
Nahitaezkoa:		Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari eskaera luzatu idazki baten bidez	BAI	BAI
- Kargu publiko batean hautagaia izatea - Eginkizun sindikalak betetzea - Askatasuna galdu eta epai irmoa jaso arte				
Borondatezkoa:		4 hilabete gutxienez eta 5 urte gehienez (berriz eskatzeko lau urte pasa behar dira)	EZ	EZ
- Urtebeteko antzintasuna enpresan				
Bateraezintasunagatik eszedentzia:		Lan eskaintza berria indarrean dagoen bitartean (Kontratua bukatu eta gero 30 eguneko epea izango dugu Haurreskolak Partzuergoari lanera bueltatzea eskatzeko)	EZ	EZ
- Beste Administrazio Publiko bateko lan eskaintza betetzera joateko				

35. artikulua: Nahitaezko bete behar publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia

Behar beste denbora hartu ahal da (lanorduetatik kanpo egin ezin bada)

36. artikulua: Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia

2 lanegun jarraian (aldaketaren eguna barne)
Egiaztageria: errolda-agiria (etxebizitza aldatzearen 2 egunetako bat agertu behar da nahitaez)

44. artikulua: Norberaren eginkizunetarako baimena

Zerbitzu aktiboan urtebete egon den langileak eska dezake (ikasturte horretan, gutxienez 6 hilabetez) / Bi urteko epean baimen honen iraupena guztira hiru hilabetezkoa izango da

Baimen motak	Iraupena		Tartea
	Gutxienez	Gehienez	
Norberaren eginkizunetarako	7 egutegi egun segidan	3 hilabete	2 urteko epean
Salbuespen kasuak: lana eta familia uztartzeko edo senideen gaixotasun larrien kasuan*	3 egutegi egun segidan*		
Gobernuz kanpoko erakundeekin garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko	3 hilabete	Urtebete	5 urtetik behin
		4 hilabete	Urte batean
Ikasketa ofizialak egiteko	Lanaldi erdia edo herena murrizteko eskubidea ekar dezake		
Administrazio/erakunde publikoetan hautatze probetara aurkezteko	Behar beste denbora		
Zigor askatasun gabetzaileraren bat betetzen ari den odol ahaidetasuneko 2. mailara arteko senideren bati bisita egiteko	Behar beste denbora (lanorduetatik kanpo egiterik ez badago)		

Odol-ahaidetasunaren organigrama

Langilea

1. mailakoak

- Izatezko bikotea
- Ezkontidea
- Gurasoak
- Haurrak
- Aitagarreba / Amagarreba

3. mailakoak

- Osaba-izebak
- llobak

2. mailakoak

- Nebak, arreba, anaiak eta ahizpak
- Bilobak
- Aitona-amonak
- Koinatu-koinatak

4. mailakoak

- Lehengusu-lehengusinak

Araba

Eulogio Serdán 5 - 01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04 - araba@steilas.eus
UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa - 01006 Gasteiz
☎ 945 01 33 97 (3397) - steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. - 48013 Bilbo
☎ 944 10 02 98 - bizkaia@steilas.eus
UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Gizarte Arloko Eraikina - 48940 Leioa
☎ 946 01 24 34 - 435 (2435) - steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz. - 20015 Donostia
☎ 943 46 60 00 - gipuzkoa@steilas.eus
UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 - 20018 Donostia
☎ 943 01 84 36 (8281) - steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa

Joaquín Beunza, 4-6 behe - 31014 Iruñea
☎ 948 21 23 55 - nafarroa@steilas.eus


www.steilas.eus



Prebentzio zerbitzua eta MUTUALIako prestazioak

Lan istripuak eta gaixotasun profesionalak

Langileen istripu edo gaixotasun profesionalen aurrean nola jokatu



MUTUALIako prestazioak

Haurdunaldian eta edoskitzaro naturalean egon litekeen arriskua	Gizarte laguntzak	Gaixotasun larria duten adingabeen zaintza
Haurdunaldiko arriskuekin eta edoskitzaroarekin lotutako prestazio ekonomikoak.	Laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondoren izan ditzakegun egoera zailetan, MUTUALIAk gizarte laguntzak eskainiko dizkio langileari, Gizarte Segurantzak lege zehaztutako prestazio eta kalte-ordainen osagarri. Banan-banaka aztertuko dira eskaerak laguntzak emateko.	Langile bat bere lanaldia murriztera derrigortuta bada go gaixotasun larriren bat duen adingabe bat zuzenean eta etengabeen zaintzeko, murrizketaren ondoren diru sarreretan izandako galera konpentsatuko dion prestazio ekonomiko hau jaso dezake.
Prestazio hauen inguruko informazioa jasotzeko telefono eta helbide elektronikoak		
Prebentzio zerbitzua: prebentzioa@haurreskolak.eus 943 821 496	MUTUALIA Araba: prestacionesvi@mutualia.es 945 009 070	MUTUALIA Bizkaia: erandioprestaciones@mutualia.es 944 042 102
MUTUALIA Gipuzkoa: prestacioneseconomicasgipuzkoa@mutualia.es 943 426 500		
www.mutualia.eu/eu/zerbitzuak/prestazioak/		

Ordainsarien taula eguneratua

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen ordainsari gordinen taula

Lanpostua	Soldata	Antzintasuna	Koordinatzaile plusa
Hezitzailea	2.258,80 €	42,24 €	58,23 €

Txanda egunak kalkulatzeko:

Ikasturtean zehar (eta haurreskolako egutegiaren arabera) hezitzailea lanera joan den (kontratuaren arabera, joango den) LANEGUNAK zenbatu eta zati 105 egin.

Emaita 0,5 eta 1,49 bada: txanda egun bat.

Emaita 1,5 edo gehiago bada: 2 txanda egun.

Amatasuna, gurasotasuna eta edoskitzea

Amatasun eta gurasotasun baimenak

Ama biologikoaren* jaiotzagatiko baimena; adopzioa, adopzio aurreko zaintza, edo harrera aldi baterako zein iraunkorragatiko baimena; eta ama biologikoa ez den gurasoaren seme-alabaren jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatiko baimena.

18 asteko baimena hartzeko eskubidea izango dute, oro har. 2 aste gehiago dagozkie haur gehigarri bakoitzeko eta 2 aste gehiago umeak desgaitasunen bat izanez gero.

Baimen hauek besterenezinak dira

	Ama biologikoa*	Ama biologiko*, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa			Nola hartu behar dira asteak?
		2019/09/01etik	2020	2021	
Nahitaezko zatia	6 aste	2 aste	4 aste	6 aste	Haurra jaiotzen den egunetik edo adopzioa, adopzio aurretiko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala ematen denetik gozatuko da, etenik gabe.
Borondatezko zatia	10 aste	6 aste	8 aste	10 aste	<p>1. Etenik gabe, aste guztiak jarraian. Derrigorrez bi kasu hauetan:</p> <p>Bi gurasoetako batek lanik egiten ez badu edo adopzio, zaintza edo harreretan haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.</p> <p>2. Asteka, haurrak 12 hilabete bete arte.</p> <p>Ama biologikoak*: nahi duenean, nahitaezko 6 asteak amaitutakoan.</p> <p>Beste gurasoak:</p> <p>- Ama biologikoaren* nahitaezko 6 asteak eta gero,</p> <p>- Ama biologikoaren* edo beste adoptatzaile/zaintzailearen baimena (aste guztiak) amaitu eta gero.</p> <p>- Ama biologikoak* edo adoptatzaile/ zaintzaile/ harrerako gurasoak edoskitze metatua eskatzen badu, hau bukatu eta gero hasiko da gainerako baimen-asteen kontaketa.</p> <p>Baimena zatika hartuz gero, asteak osorik hartuko dira. Baimen-zati bakoitza hartzeko aurre-abisu atzerazina egin beharko da, gutxienez, 15 lanegun lehenago.</p> <p>Baimena zatika hartzea erabakiz gero, ordainketa aste guztiak agortu arte ez da egingo (momentuz, garapen informatikoak egiten ez diren bitartean).</p>
Hobetutako zatia (Haurreskolak Partzuergoak ematen dituenak)	2 aste	10 aste	6 aste	2 aste	<p>Borondatezko zatia amaitzen denean hartu behar da, jarraian eta etenik gabe.</p> <p>Salbuespena: baimenaren zati hau disfrutatu bitartean kontratua amaitzen bada, hurrengo kontratu(ar)ekin batera berehala jarraituko dute baimenarekin, hau agortu arte (haurrak 12 hilabete bete aurretik).</p>

* STEILASen legeak baliatutako Ama Biologikoa terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

Edoskitzea (haurrak urte bat bete arte)

Egunero ordu bateko murrizketa laneko ordainsarietan eraginik izan gabe (lanaldiaren hasieran edo amaieran).

Edoskitze metatua: haurrak urte bat bete bitartean amaiera data zehatza duen kontraturik baduzu, orduak metatzea posible da. Zenbat egun dagozkizun jakiteko, zenbatu zenbat LANEGUN geratzen zaizkizun amatasun bajaren ostean umeak urtea bete bitartean eta zati 6 egin. Emaita metatu ditzakezun egun kopurua izango da. Kontuan hartu kasu honetan ezin dela adin txikikoen zaintzagatik eszedentzia eskatu umeak urtea bete arte.